

Katalin Erauso

Liman, zazpi hilabete iragan nituen ahal izan nuen molderik hoberenean. Zaldi bat erosi nuen. Ona zen, eta ez biziki garestia. Haren gainean ibili nintzen egun batzuez, Cuscora joan-jin baten egiteko gauzak prestatu artean.

Egun batez, herriko plazan nengoela, ertzain bat etorri zitzaidan, Juan Espinosa, Santiagoko kofradiako auzapez jaunarengana joateko aginduarekin.

Agintariaren aitzinera agertu nintzenean, ondoan zituen bi soldaduak hasi ziren salatzen:

- Hauxe da- erran zuten berehala- hauxe da gure zaldia; bulta honetan galdurik ibili zaiguna. Abere honi buruz nahi dituzuen xehetasun guziak eman ditzakegu.

Ertzainek inguratu ninduten. Auzapezak berriz:

-Zer egin behar dugu orain?-zioen.

Nik ez nekien zer erran, arazo hartan bat-batean sartu nindutenez geroz. Duda handitan nengoen, nahasirik. Baina, tapla! Zerbait bururatu zitzaidan. Soingainekoa kendu eta zaldiari burua estali nion.

-Jauna!-erran nuen- zaldi hau (okerra) begibakarra da, bi gizon hauek erran dezatela zein begi falta duen, ezkerrekoa ala eskuinekoa? Gerta daiteke, gizon hauek makur izatea eta beste zaldi baten jabe izatea.

- Ez dago gaizki errana- jarraitu zuen auzapezak- erran ezazue biok batera zein aldetako begia falta duen!- agindu zien orduan.

- Ezkerrekoa- erantzun zuen batek.

- Eskuinekoa hobeto errateko- besteak.

- Biek ere guti gorabehera erantzun duzuela aitortu behar, beraz- zioen alkateak.

-Ezkerrekoa, ezkerrekoa. Segur gaude- haiek berriz ere.

-Jauna!- nik orduan-, hemen ez dago gauza argi eta garbirik. Batek bat eta besteak bestea.

- Ez, Jauna -oldartu zitzaion batto- Biok gauza bera diogu: ezkerreko begia eskas duela. Nik ere hori erran nahi nuen hastapenetik, baina tronpatu naiz. Nire hutsa zuzendu dut, eta ezkerrekoa falta duela errepikatzen dut.

-Zer agintzen duzu?- galdegin nion auzapezari.

-Gauzak ez baitira garbi, har ezazu zaldia eta zoaz zure bidetik- ihardetsi zidan.

Orduan, nik zaldiari estalkia kendu eta auzia betiko erabaki nuen:
-Begira, Jauna. Bai bata, bai bestea, biak aritu dira gezurretan. Zaldia ez baita batere begibakarra (okerra); bi begiak oso osorik ditu.

Auzapezak aberea ikertu zuen, eta honela erran zidan:

- Igan zaitez zaldi gainera, eta jainkoak lagun zaitzala.

Haatik, bi soldaduak preso ezarri zituen eta ni, alabaina, Cusco aldera abiatu nintzen.



Inaki Azkune
(Txor-Txor III, erein, moldatua.)

Katalin Erauso (biografia laburra)



Katalin Erauso —*Moja alferesa* (Serora lotinanta) deitua — (Donostia 1585- Cuitlaxtla, Mexiko, 1650) soldadua, abenturazalea eta serora izan zen.

Donostiako Dominikar Seroren komentuan sartu zuten 4 urte zituelarik, baina Katalinen izaera ez zen serora izateko egina, usu borrokan ari zen eta beste serora bat inarrosi (jo) ondotik, komentuz aldatu zuten.

Ez zuen serora izan nahi, beraz 15 urtetan komentutik ihes egin zuen, gizonez beztiturik eta Frantzisko de Loiola izena hartuz.

Handik aitzina beti gizonez jantzirik ibili zen. Hego Ameriketara joan zen, Espainiako Koruaren zerbitzuko, haren alde borrokatzera, Mundu Berria konkistatzera eta hango herritarren zapaltzera.



Katalin Erauso (biografia laburra)

Haren bizizia abenturaz josia izan zen, hala nola Panaman, Perun, Txilen, Argentinan, Bolivian eta Mexikon... ibili zen, ezpataz beti borrokan edo duelutan aritzeko prest. Denek uste zuten gizona zela, haren senideek ere! Gizon anitz hil zituen, horietarik bat bere anaia... eta preso ezarri nahi zuten. Herri batetik bestera iheska zebilen harrapatua ez izateko.

Zauritua eta hilzorian zegoen egun batez, emazte bat zela aitortu zuen. Europara itzuli eta Aita Sainduak onartu zion gizona beztitzea eta gizon izena hartzea.

Azkenean Mexikoko Vera Cruz hirian mando komertzioan bukatu zuen bizia, Antonio de Erauso izena harturik.

1650ean hil zen Cuitlaxtlan, Mexikon.

Katalin Erasok bere autobiografia idatzi zuen 1626an; hala diote segurik. Haatik, 1625etik goiti, idazle, poeta eta film-egile ainitzek Katalin Erasoren fama hedatu zuten mundu osoan, gaurdaino... Hala nola, 2016an, arrakasta handia kausitu zuen Katalina De Erauso pastoralaren eman zen Baionan, Donostian eta Donibane Garazin.



Ulertzen dut

a- Nork kontatzen du istorio hau? Zein pertsonatan idatzia da?

.....

b- Non gertatu zen kontakizun hau?

.....

c- Zer bururatu zitzaion Katalini zaldia berea zuela argi eta garbi uzteko?

.....

d- Nori eman zion arrazoin auzapezak? Zergatik?

.....

e- Zer egin zien auzapezak soldaduei?

.....

a-Kontakizun hau antzerki bihur ezazu eta ondoren antzez.

- Hastapenean: jokalarien izenak, eszena non kokatzen den, jantziak, ... idatz.
- Ihardespen edo erreplika (pertsonaiek erraten dutena) bakoitzaren aitzinetik nor mintzo den idatz.
- Behar izanez geroz didaskaliak parentesi artean (pertsonaiak mintzatzean nola erraten duen, zer egiten duen ...) *letra etzanez* ezar.

II. Agerraldia (Eszena)

Katalin Erauso
 Juan Espinosa Auzapeza
 1. Soldadua
 2. Soldadua
 1. Ertzaina
 2. Ertzaina



(Limako Herriko Etxearen aitzinean)

- 1.Soldadua:** - *(Auzapezari buruz so eginez)* Hauxe da. Hauxe da gure zaldia, bulta honetan galdurik ibili zaiguna.
- 2. Soldadua:** - Nahi dituzuen xehetasun guziak eman ditzakegu abere honi buruz.

(Ertzainek Katalin inguratzen dute.)

Auzapeza: - Zer egin behar dugu orain?

(Katalin isilik dago, pentsakor. Bat-batean zerbait bururatzen zaio.)

Katalin: - *(Soingainekoa kenduz eta zaldiari burua estaliz.)* Jauna! Zaldi hau begibakarra da, bi gizon hauek erran dezatela, zein begi falta duen, ezkerrekoa ala eskuinekoa? Gerta daiteke, gizon hauek makur izatea eta beste zaldi baten jabe izatea.

...

b-Ongi antzezteko:

- Doinu egokia har, ihardespenen eta didaskalien arabera.
- Ihardespenei erritmo egokia eman.
- Jestu edo keinu egokiak egin, hitzen eta ene lekualdatzeen laguntzeko publikoaren aitzinean.